

MENDIEEI ETA BABESPEKO NATURGUNEEN  
ADMINISTRAZIOARI BURUZKO EKAINAREN 2KO  
1994/3. FORU ARAUA ALDATZEKO FORU  
ARAUREN AURREPOEIKTUA

HITZAURREA

I  
Mendiei eta babespeko naturaguneen  
administrazioari buruzko 1994ko ekainaren 2ko  
1994/3 Foru Arauak, martxoaren 20ko 3/2007 Foru  
Arauak egindako aldatzarekin batera, erregulatzen  
du Bizkaiko Lurralde Historikoko mendiei eta baso-  
eremuei eta Bizkaian deklaraturako naturagune  
babestuei aplikatu beharreko araubide juridikoa, eta  
«basoaren gaineko politikaren ardatz nagusiak»  
izeneko 3. artikuluan adierazten duenez, 1.  
zenbakian, basoan egingo den edozein jarduketa,  
berdin da izaera zein den eta sustatzailea edo  
titularra nor den alde batetik, baso-ondareak  
eskutzen duen ekologiaren eta gizartearen interesak  
eta bestetik, ustiapen horietan aplikatu daitezkeen  
ekonomiaren interesak kontutan hartuta burutu  
beharko da; beraz, beti ere basoaren ustiapenak  
ingurugiroa errespetatuko du, ondasun eta  
zerbitzuetan eten barik behar den eta aurreikusita  
dagoen hornidura ahaztu barik. Horrez gainera, zera  
dio 2. zenbakian:

«2. Edozein kasutan be eta arestian aitatu dogun  
orekea lortzea ezinezkoa danean, basoen

ANTEPROYECTO DE NORMA FORAL POR LA  
QUE SE MODIFICA LA NORMA FORAL 3/1994,  
DE 2 DE JUNIO, DE MONTES Y  
ADMINISTRACIÓN DE ESPACIOS NATURALES  
PROTEGIDOS

PREÁMBULO

I  
La Norma Foral 3/1994, de 2 de junio, de Montes y  
Administración de Espacios Naturales Protegidos,  
junto con su modificación efectuada por la Norma  
Foral 3/2007, de 20 de marzo, regula el régimen  
jurídico aplicable a los montes y áreas forestales  
del Territorio Histórico de Bizkaia y la  
administración de espacios naturales protegidos  
declarados en Bizkaia, y recoge entre los  
“Principios rectores de la política forestal” del  
artículo 3, en el contexto de su apartado 1, que  
toda actuación forestal, cualquiera que sea la  
naturaleza de ésta y el titular o promotor de la  
misma, deberá responder al principio de  
coordinación entre los intereses ecológicos y  
sociales del patrimonio forestal con los intereses  
económicos de los que sean susceptibles tales  
explotaciones, mediante una gestión forestal  
respetuosa con el Medio Natural y eficaz en el  
suministro permanente y predecible de bienes y  
servicios, señalando en su apartado 2 que:

“2. En cualquier caso, y siempre que el perseguible  
equilibrio anteriormente señalado no fuera posible



*erabilereari edo ustiapenari buruzko jarduketa guztiak euren jagotza, artapena eta zuzperketeari lotuta egongo dira, mendiotan danetariko arbolak izan daitezcan eta luzaroan iraun daien, basoak eta ekologiarene eta paisaiaren orekea mugatuz, antolatuz eta taiutuz».*

Bestalde, 3/94 Foru Arauaren 4. artikuluan, foru-arau horren «oinarrizko helburuak» ezartzen dira: lehenik, lurralde historikoko mendien eta basoen balio sozioekologikoak artatu eta zaintzea; bigarrenik, basoen ezaugarriak eta baldintzak mantentzea, eta ahal den guztietan higadura eta alperrik galtzea galarazteko aurretiazko neurriak hartzea, eta, hirugarrenik, berezko ezaugarrien eta naturaren kontrako jarduerak edo esku-hartzeengatik degradatuta dauden basoak berez komeni zaizkien erabilera eta aprobetxamenduetarako berreskuratzea eta prestatzea. Eta, horrez gainera, adierazten da foru-arau horri dagokiola, 2007ko martxoaren 20ko 3/2007 Foru Arauan berridatziriko 4.4 artikuluan arabera:

*«4. Jatorriko Lurraldeko mendien eta basoen erabilera eta aprobetxamendua antolatzea eta arautzea, baso ekoizpenak eta hari uztartutako sektore ekonomikoak bateragarri izatea ahalbideratzen duten baldintzak eta neurriak ezarri, baso horien balio natural eta ekologikoen babesaren eta defentsaren kaltetan izan gabe».*

2003ko azaroaren 21eko Mendien 43/2003 Legea, bere bigarren xedapenaren lehen zenbakiaren arabera, oinarritzko legeria da mendi, baso-aprobetxamendu eta ingurumenaren babesaren arloan. Legearen helburua, modu esplizituan erregulatua lehen artikuluan, mendien kontserbazioa eta babesa bermatzea da, horretarako mendien lehengoratzeta, hobekuntza, iraunkortasuna eta arazoizko aprobetxamendua sustatuz, oinarritzat harturik elkartasun kolektiboa eta lurralde-koheretia, bigarren tituluan ezarritako mendiei buruzko araubide juridikoarekin bat. Mendi pribatuen araubideari eta haien kudeaketari dagokienez, 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, kasu kasuko administrazio eskudunen basoen

*lograrlo, toda actuación relativa al uso o aprovechamiento de las áreas forestales estará supeditada a la protección, conservación y fomento de las mismas, garantizando la diversidad y permanencia de los montes arbolados, delimitando, ordenando y articulando el territorio forestal y el continuo ecológico y paisajístico.»*

Por otra parte, en el artículo 4, de la Norma Foral 3/94, se establece que constituyen “objetivos básicos” de dicha Norma Foral, en primer lugar, el de conservar y proteger los valores socio-ecológicos de los montes y áreas forestales del Territorio Histórico, así como en segundo lugar el de mantener y, en su caso, recuperar las condiciones y características de los terrenos forestales, adoptando para ello las medidas tendentes a evitar la erosión y degradación de los mismos, y también en tercer lugar el de recuperar y rescatar para los usos y aprovechamientos que les sean propios, las áreas forestales degradadas por actividades o intervenciones contrarias a sus propias características y naturaleza, señalando que corresponde a la citada Norma Foral, conforme al artículo 4.4 redactado conforme a la Norma Foral 3/2007, de 20 de marzo, que la modifica:

*“4. Ordenar y regular el uso y aprovechamiento de los montes y áreas forestales del Territorio Histórico, estableciendo las condiciones y medidas que posibiliten la compatibilidad de las producciones forestales y sus sectores económicos asociados, sin menoscabo de la protección y defensa de sus valores naturales y ecológicos de las citadas áreas.”*

La Ley estatal 43/2003, de 21 de noviembre, de Montes, tiene carácter de legislación básica sobre los montes, aprovechamientos forestales y protección del medio ambiente, conforme a su Disposición Final Segunda, apartado 1; tiene como objeto explícito regulado en su artículo 1, garantizar la conservación y protección de los montes, promoviendo su restauración, mejora, sostenibilidad y aprovechamiento racional, apoyándose en la solidaridad colectiva y la cohesión territorial, conforme al régimen jurídico de los montes establecido en su Título segundo, y en lo que respecta al régimen de los montes privados y su gestión, conforme a lo dispuesto en



arloko organoak gainbegiraturiko basokudeaketarako edo -plangintzarako tresnari jarraitu beharko zaio, eta, halako tresnarik ezean, titularraren kudeaketak berekin ekarriko du, nahitaez, baso-aprobetxamenduetarako alde aurreko baimena, aplikatzekoa den araudiaren arabera basoen arloko organoak ezartzen duen moduan. Alde horretatik, Mendiei buruzko 2003ko azaroaren 21eko 43/2003 Legeak, amaierako hirugarren xedapenean, araugintza-garapenerako aukera ematen du, eta, hala, kontuan harturik zer ezartzen duen bere 7.a) .9 artikuluan Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzko 27/1983 Legeak, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-organoei dagokie honako gai hauen gaineko eskumen eskusiboa:

*«Mendiak, oihan-ustiaketa eta zerbitzuak, abereentzako bideak eta alaguneak, Autonomia-Estatutoaren 10.8 atal dioenez, oihanzaintza eta nekazaritza, eta oihan-lurrei bere onean eustea eta hobetzea».*

II

*Eucalyptus* generoko espezieak Bizkaiko mendien kudeaketari buruzko eztabaida sozialaren mami-mamian daude, eta haiek murriztearen eta are debekatzearen aldeko dira batzuk, espezie horrek ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarrietan oinarrituta; beste batzuek, ordea, beste eremu batzuetakoak, batez ere basogintza-sektorea, zuhaitzon balioak defendatzen dituzte basojardueraren eta -ekonomiaren sortzaile gisa, eta espezie horren ingurumen-iraunkortasuna ere nabarmentzen da.

2020an Euskal Autonomia Erkidegorako egindako Baso Maparen arabera, Erkidegoko baso-azalera 395.168 hektarea dira; haietatik 222.201 hostozabalei dagozkie, eta gainerako 172.967 hektareak, berriz, konifero-barietateei. *Eucalyptus* generoko espezieek 23.072 hektareako hartzen dituzte: azalera osoaren % 5,9.

Bizkaiko Lurralde Historikoan, baso-azalera 131.676

el artículo 23, debiéndose ajustar al correspondiente instrumento de gestión o planificación forestal supervisada por el órgano forestal de la administración competente, y a falta de dicho instrumento, la gestión del titular conllevará la necesaria autorización previa para los aprovechamientos forestales en los términos que el órgano forestal establezca conforme a la normativa de aplicación. En este sentido la Ley 43/2003, de 21 de noviembre, de Montes, habilita su desarrollo normativo conforme a su Disposición Final Tercera, de manera que corresponde a los Órganos Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, conforme a lo dispuesto en el artículo 7.a).9 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos del País Vasco la competencia exclusiva en materia de:

*“Montes, aprovechamientos, servicios forestales, vías pecuarias y pastos, en los términos del artículo 10.8 del Estatuto de Autonomía; guardería forestal y conservación y mejora de los suelos agrícolas y forestales.”*

II

Las especies del género *Eucalyptus* están en el centro del debate social, sobre la gestión de nuestros montes en Bizkaia, con partidarios de su restricción e incluso prohibición en base a potenciales consecuencias perjudiciales de esta especie para el medio ambiente, y con partidarios en sentido contrario, desde otros ámbitos, sector forestal principalmente, que defienden sus valores como generador de actividad y economía forestal, destacando también su sostenibilidad ambiental.

De conformidad con el Mapa Forestal elaborado para la Comunidad Autónoma del País Vasco en 2020, la superficie forestal de la Comunidad se cuantificó en 395.168 hectáreas, de las cuales 222.201 correspondían a frondosas y las 172.967 hectáreas restantes a las diferentes variedades de coníferas. La superficie ocupada por las especies del género *Eucalyptus* se cuantificó en 23.072 hectáreas, un 5,9% del total.

En el territorio Histórico de Bizkaia la superficie



hektarea direla ezarri zen 2020an; horietatik 58.257 hektarea hostozabalak ziren, eta gainerako 73.419 hektareak, berriz, konifero-bariatateak. *Eucalyptus* generoko espezieen azalera 20.506 hektareakoa zela neurtu zen, hau da, azalera osoaren guztizkoaren % 15,6, eta, azken urteetan, goranzko joera argia izan du. Izan ere, 2020an Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailean eskaturiko birpopulaketa-baimenen % 60 baino gehiago dagozkie espezie horiei.

Ingurumen-araudia aztertuta, egiaztatu da *Eucalyptus* generoko espezieak espezie exotikoak direla; izan ere, Iberiar Penintsulan ez dira arrazoi naturalengatik sortu. Hala ere, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak, 2020ko urriaren 30eko 505/2020 Epaian, adierazi zuen ez dagoela irizpide zientifiko erabakigarriak esateko eukaliptoak, bere generoan, espezie exotiko inbaditzaile dela ezartzeko eta halakoen katalogoan sartzeko.

Eukalipto generoa ez denez sartu espezie exotiko eta inbaditzaileen katalogoan, ez da neurririk hartu hura mugatzeko eta/edo debekatzeko, alde batera utzita naturagune babestuak antolatzeke eta kudeatzeko tresnetatik eratorritako neurriak.

Gaur egun, baso-azaleraren % 76 esku pribatuetan dago. Horregatik, Bizkaian, komenigarria da beharrezko baso-antolamenduko tresnak bultzatzea bermatzeko lurraldean modu orekatuan banatzen direla espezieak, izan ekoizpenerakoak zein kontserbazioari begirakoak, eta, horrela, alderdi guztien eskariei erantzuteke eta egokitzeko: bai gizarte osoarenei eta bai, zehazki, bere baso-jarduera gure lurraldean garatzen duten jabe eta kudeatzaileenei.

Era berean, Euskadiko Baso Plangintzak (1994an onartu eta 2030era bitarteko indarraldia duenak) ez zuen kontuan hartu gaur egungo egoera, *Eucalyptus* generoko espezieak ugaltzearen ondorioz sortua, ez eta une honetan konifero-masa jakin batzuei –batez ere intsinis pinuari– larri erasaten dieten patologien ondorioak ere, nahiz eta espezie hori oso zabaldua zegoen plana onartu zenean. Azaldutako argudioen

forestal en 2020 se cuantificó en 131.676 hectáreas, de las cuales 58.257 correspondían a frondosas y las 73.419 hectáreas restantes a las diferentes variedades de coníferas. La superficie ocupada por las especies del género *Eucalyptus* se cuantificó en 20.506 hectáreas, un 15,6% del total, con una tendencia netamente creciente en los últimos años y representando más del 60% de las autorizaciones de repoblación solicitadas al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural en 2020.

Del análisis de la regulación medioambiental se constata que las especies del género *Eucalyptus* son especie exóticas, ya que su origen en la Península Ibérica no ha sido dado por causas naturales. No obstante, el Tribunal Superior de Justicia de Madrid en la Sentencia 505/2020, de 30 de octubre de 2020, consideró que no existe un criterio científico determinante para considerar el eucalipto, en su género, como especie exótica invasora y para su inclusión en el Catálogo correspondiente.

La no inclusión del género eucalipto en el catálogo de especies exóticas e invasoras hace que no se haya tomado ninguna medida para su limitación y/o prohibición, más allá de las derivadas, en su caso, de los instrumentos de ordenación y gestión de los espacios naturales protegidos.

Actualmente el 76% de la superficie forestal está en manos privadas razón por la cual en Bizkaia resulta conveniente que se impulsen los instrumentos de ordenación forestal necesarios para garantizar una distribución territorial equilibrada de las diferentes especies, ya tengan un carácter productivo y/o de conservación, atendiendo y adaptándose a las actuales demandas del conjunto de la sociedad en general y de las personas propietarias y gestoras que desarrollan su actividad forestal sobre el territorio, en particular.

A su vez, el Plan Forestal Vasco, aprobado en 1994 y con una vigencia que se extiende hasta 2030, no tuvo en cuenta la situación actual derivada de la proliferación de las diferentes especies del género *Eucalyptus* ni los efectos de las diferentes patologías que en estos momentos están afectando seriamente a determinadas masas de coníferas, fundamentalmente de pino radiata,



arabera, nahitaezkoa da gogoeta egitea 1994ko baso-plangintzan ezarritako ardatzei eta helburuei buruz, sektorearen errealitate berrira egokituz.

Mendiak eta natura-ingurunea zaintzea eta babestea, eta haien lehengoratzea, hobetzea, jasangarritasuna eta arrazoizko aprobetxamendua sustatzea, oraindik ere bada baso-kudeaketa jasangarriaren helburu nagusietariko bat. Kudeaketa hori, betiere, baso-espezieen arteko lurralde-orekara bideratuta dago, eta bateragarri izan nahi du gure mendietan aintzat hartu behar ditugun ekoizpen-, kontserbazio- eta babes-helburuekin, kontziente izanik zer onura sozioekonomiko eta zerbitzu ekosistemiko dakartzaten berekin (zura, ura, paisaia, aisialdia, etab.).

III

Aurretiko kontsulta publikoaren prozesu bat egin da, Bizkaiko Lurralde Historikoan eukalipto generoko sail berriei moratoria bat ezartzeko egokitasunari dagokionez. Prozesu horretan, hainbat alderdik parte hartu dute, hau da, erakunde sektorialeak, ekoizleak, ingurumen-taldeak, zientzialariek eta teknikariek, eta hainbat partikularrek, eta haien guztien eta herritarren iritzia jasotzeko.

Era berean, araudi hau izapidetzean, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-erakundeen hautaketari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluan ezarritakoa bete da, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritako izapideak ere.

Aurretik azaldutako guztiagatik, egokituz jotzen da aldi baterako moratoria bat ezartzea Eucalyptus generoko espezieen sail berrietarako, harik eta ingurumen, ekonomia eta gizartearen orekari

especie de gran implantación en el momento de aprobación del Plan. Los argumentos expuestos hacen necesaria una reflexión sobre los ejes y objetivos establecidos en la planificación forestal de 1994, adecuándolos a la nueva realidad del sector.

La conservación y protección de los montes y del medio natural, promoviendo su restauración, mejora, sostenibilidad y aprovechamiento racional sigue siendo uno de los principales objetivos de la Gestión Forestal Sostenible, orientado siempre, a un equilibrio territorial, entre las distintas especies forestales, compatible con los fines productivos y de conservación y protección que debemos de contemplar en nuestros montes, conscientes de los distintos beneficios socioeconómicos y correspondientes servicios ecosistémicos que aportan (madera, agua, paisaje, ocio, recreo, etc.)

III

Se ha realizado un proceso de Consulta Pública Previa, respecto de la oportunidad y pertinencia de establecer una moratoria a las nuevas plantaciones del género Eucalipto en el Territorio Histórico de Bizkaia, en el que han participado distintas organizaciones sectoriales, productores y productoras, colectivos ambientalistas, la comunidad científica y técnica y particulares, habiéndose recogido las distintas opiniones de todas ellas y de la ciudadanía.

Igualmente, en la tramitación de la presente normativa se ha cumplido lo establecido en el artículo 55 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como los trámites establecidos en el Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, de la diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por todo lo expuesto anteriormente, se considera oportuno incorporar de manera transitoria una moratoria en las nuevas plantaciones de especies del género Eucalyptus, en tanto en cuanto se



eusteko beharrezko diren baso-antolamenduko tresnak onartu eta dagokion araudia egokitu arte.

aprueben los instrumentos de ordenación forestal necesarios para preservar un equilibrio medioambiental, económico y social y se adecúe la normativa correspondiente.

## XEDAPENAK

**Artikulu bakarra.** Aldatzea Mendiei eta babespeko naturaguneen administrazioari buruzko 1994ko ekainaren 2ko 1994/3 Foru Araua

Beste xedapen gehigarri bat eransten zaio, zortzigarrena, Mendiei eta babespeko naturaguneen administrazioari buruzko 1994ko ekainaren 2ko 1994/3 Foru Arauari, eta honela idatzirik geratuko da:

“Zortzigarren xedapen gehigarria. *Basoak Eucalyptus generoko espeziez berritzea*

- a) Aldi baterako neurri legez, 2025eko abenduaren 31ra arte, bakarrik baimenduko da *Eucalyptus* generoko basoberritzeak egitea baldin eta basoen arloko administrazioak xedapen hau indarrean sartu aurretik onarturiko baso-antolamendurako edo -kudeaketarako tresnetan aurreikusirik badaude, edo, tresnotan jasota egonik, haien onarpen-eskaera xedapen hau indarrean jarri aurretik izapidetzen ari bada eta azkenean administrazioak onartzen baditu.
- b) Aldi baterako neurri legez, 2025eko abenduaren 31ra arte, bakarrik baimenduko da *Eucalyptus* generoko basoberritzeak egitea berritu nahi den sailean lehen ere zegoen masa genero horretakoa bazen huts-hutsean edo mistoa izanik hura bazen nagusi, eta, betiere, aurreko landaketak egitean indarrean zegoen araudi sektoriala errespetatu bada. Ez da baimenduko *Eucalyptus*en aurreko azalera gaintitzea.

## PARTE DISPOSITIVA

**Artículo único.** Modificación de la Norma Foral 3/1994, de 2 de junio, de Montes y Administración de Espacios Naturales Protegidos.

Se añade una nueva Disposición Adicional, la octava, a la Norma Foral 3/1994, de 2 de junio, de Montes y Administración de Espacios Naturales Protegidos, que quedará redactada como sigue:

“Disposición adicional octava. *Repoblaciones con especies del género Eucalyptus*

- a) Con carácter transitorio, hasta el 31 de diciembre de 2025 solo estarán permitidas las repoblaciones con especies del género *Eucalyptus* previstas en instrumentos de ordenación o gestión forestal que hayan sido aprobados por la Administración forestal antes de la entrada en vigor de esta disposición, o en dichos instrumentos cuando su solicitud de aprobación se encontrase en tramitación con anterioridad a la entrada en vigor de esta disposición, y que fuesen, finalmente, objeto de aprobación por la Administración forestal.
- b) Con carácter transitorio, hasta el 31 de diciembre de 2025 las reforestaciones con especies del género *Eucalyptus* únicamente estarán permitidas cuando la ocupación anterior del terreno objeto de la reforestación haya constituido una masa pura o mixta dominante de este género, y siempre y cuando las plantaciones anteriores se hayan realizado respetando lo dispuesto en la legislación sectorial vigente. No se permitirá que se supere la superficie anterior de *Eucalyptus*.



- c) Aurreko zenbakietan adierazitakoaren ondorioetarako, honako hau hartuko da okupazio nagusitzat: katastroko partzela beraren barruan, *Eucalyptus* generoko oin handien ehunekoa masa osoaren % 50 baino handiagoa denean. Horretarako, oin handitzat joko dira beren diametro normala 7,5 zentimetro edo gehiagokoa dutenak.
- d) Xedapen honen ondorioetarako, basoberritzea zera izango da: sail batean zuhaitz- nahiz zuhaixka-espezieak ereitea nahiz landatzea, eta hori basotzea nahiz basoberritzea izan ahalko da.
- e) Basoberritzea izango da baso-espezieak berriro sartzea, erein nahiz landatuz, oraintsu arte basoz populaturik izan direneko lurretan, zeinak soildurik geratu diren mozketa, suteak, haizeteak, plagak, gaixotasunak nahiz beste arrazoi batzuk direla medio.
- f) *Eucalyptus* generoarekiko basoberritzei ez zaie aplikatuko 3/1994 Foru Arauaren 87. artikulua 2. zenbakian adierazten dena, katalogatu gabeko eta babesle ez diren norbanakoen mendietako birlandaketei dagokienez.
- g) *Eucalyptus* generoarekin egiten diren eta xedapen gehigarri honen a) letraren arabera baimendu diren landaketa berriak egiteko epea 30 egun izango da, xedapen hau indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita.”
- c) A los efectos de lo indicado en los números anteriores, se entenderá por dominante aquella ocupación que, dentro de la misma parcela catastral, suponga un porcentaje de pies mayores del género *Eucalyptus* superior al 50 % del total de la masa. A estos efectos, se considerarán pies mayores aquellos que presenten un diámetro normal igual o superior a 7,5 centímetros.
- d) A los efectos previstos en esta disposición, se entenderá por repoblación forestal la introducción de especies forestales arbóreas o arbustivas en un terreno mediante siembra o plantación, y podrá ser forestación o reforestación.
- e) La reforestación consistirá en la reintroducción de especies forestales, mediante siembra o plantación, en terrenos que estuvieron poblados forestalmente hasta épocas recientes, pero que quedaron rasos a causa de talas, incendios, vendavales, plagas, enfermedades u otros motivos.
- f) En caso de repoblaciones con el género *Eucalyptus*, no les será de aplicación lo indicado en el apartado 2 del artículo 87 de la Norma Foral 3/1994, relativa a la repoblación de montes no catalogados y particulares no protectores.
- g) El plazo de ejecución para las nuevas plantaciones que se realicen con el género *Eucalyptus* y que hayan sido autorizados conforme al apartado a) de la presente Disposición Adicional, finalizará a los 30 días naturales, contados desde la entrada en vigor de la presente disposición.”

Azken xedapen lehenengoa. *Erreglamenduz garatzeko gaikuntza.*

Disposicion final primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario*



Foru Aldundiak, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Saileko titularrak proposatuta, arau hau garatzeko eta gauzatzeko beharrezko diren erregelamenduzko xedapen guztiak onartuko ditu.

Azken xedapen bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru-arau hau.

La Diputación Foral, a propuesta de el/la titular del Departamento Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, aprobará cuantas disposiciones reglamentarias fueran necesarias para el desarrollo y ejecución de esta Norma.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor*

La presente Norma Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.